


Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/11/30 | 374

🌀	Ion Diaz Azkolain eta Aritz Larreta Bereziartua
🌀	Euskaraz bizi nahi dugulako
🌀	Ikasle txokoa: Leire Azkue
🌀	Karlos Linazasoro, Urperatze handia
🌀	Kultura: Benito Lertxundi



Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskaraz Bizi! Eguna

🌀 Juan Karlos Oterorekin solasean

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

NUTRIZIO AHOLKULARITZA OSASUN ZENTROA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2º ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

AMAIA ETXETXIPIA
"BIOLOGIAN" lizentziatua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomatu

SUPER EKO
SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

Ederki bizi dira (gizonezko) batzuk,
beste (emakumezko) batzuen kontura!
Zainketa duinak guztiontzat: gizon
nahiz emakumeontzat.

#EgitekoAsko
Emakumeen eta Gizoneen berdintasunerako II. Foru Plana

Gipuzkoa
BERAZA

berdintasuna
egiteko asko
www.berdintasuna.tv

nonzer

galtzaundi
Euskararen Taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia,
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
AZALAK

Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURAREN SAIA
Kulturaren Politikaren Babesleak
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

Galtzaundin azalduko iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.

**Erreportaia:
Euskaraz Bizi! Eguna**

Galtzaundi Euskara Taldeak abenduaren 1ean, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizun bezperatan Euskaraz Bizi! Eguna antolatu du Tolosako Udalarekin, Oargi Elkartarekin, Lizardi Kultur Elkartarekin eta Bai Euskal Herriarekin elkarlanean. Euskararen festa bihurtu, euskararen alorrean lanean aritutakoak zoriondu eta euskararen erabilera eragitea helburu du Euskaraz Bizi! jaia.

8-11. orrialdeak

Juan Karlos Otero Anoetan kokaturiko Mapi Grabatuak enpresaren jabea da. Alkizan jaio baina aspalditik du Anoeta bizi eta lanerako tokia, euskaldun eta euskaltzalea da. Grabatu eta errotulazio lanetan murgilduta dihardu Mapi Grabatuak enpresa erosi zuenetik, ordutik gainera enpresa munduan euskarari behar duen tokia ematen lan egin du.

Elkarrizketa: Juan Karlos Otero
14-16. orrialdeak

6	Iritziaren leihoa: Ion Diaz Azkolain eta Aritz Larreta Bereziartua	4-5
6	Normalizazioa: Euskaraz bizi nahi dugulako	6-7
6	Ikasleen txokoa: Leire Azkue (Hirukide)	12
6	Irakurlearen begietatik: Karlos Linazasoro, Urperatze handia	13
6	Kultura: Benito Lertxundi	17-19

Euskaraz **b**izi nahi dugulako

Abenduaren 1ean euskal herritarrok hitzordua dugu Donostian, manifestazioa burutuko dugulako, bertan, "Euskaraz bizi nahi dugu" lelopean.

Oskar Elizburu eta Mertxe Mugika AEKren Artekari Kontseiluko kidea eta AEK koordinatzaile nagusia, hurrenez hurren.

Milaka herritar gara euskaraz bizitzeko hautua egin dugunok; baina, zoritxarrez, milaka arazo aurkitzen dugu geure lan handia dago egiteke euskararen normalizazioan; hori azpimarratu du, duela gutxi, Europako Batzordeak berak, Hizkuntza Gutxituen Itunaren konpromisoak betetzen ote diren aztertu ostean.

Jorratu beharreko bideak askotarikoak dira, beraz, baina bereziki bi esparru indartu behar dira: euskararen ezagutza eta euskaraz bizi ahal izateko guneak. Biak ala biak bultzatzen ditugu AEKn, jakina, eta horretxegatik egiten dugu bat manifestazio deialdiarekin.

Hizkuntza batean bizi ahal izateko, hizkuntza horren ezagutza ezinbesteko aldagaia da. Euskararen kasuan, ezagutza indizea igo egin da azken urteotan, baina ez eragite na-

barmenatarako beste: euskara ez dakitenean kopurua oso altua eta kezagarria da oraindik ere. Bestalde, ezagutza indizearen barruan daudenak -ia euskaldunak, esaterako- erabiltzeko benetako gaitasunarekin zenbateraino bat datozen ere sakonago aztertu beharko litzateke.

Gure hizkuntzaren normalizaziorako bidean, bere garaian, indar handia jarri zen haurren hezkuntzan, baina ia batere ez transmisioan; hau da, gurasoei begirako euskalduntzean, Helduen Euskalduntze Alfabetatzean. Egindako zenbait ikerketaren arabera, azken hamarkadetan euskarak 300.000 hitzur irabazi ditu, eta horien herena euskaltegiei zor zaie, alajaina! Ametsetan hasita, zein egoeratan geundeko euskalduntze alfabetatzea buru-belarri bultzatu izan balitz eta, hezkuntzak euskalduntutako umeei batera, indar berearekin eta neurri berean helduak euskaldundu izan balira?

Zalantzarik gabe, erabileran aurrera abiada egokian egiteko, hizkuntzaren ezagutza unibertsal bihurtu beharra dago, ezinbestekoa da ezagutza bermatzea. Horretarako, hartu beharreko neurrietariko bat da baliabideak jartzea, euskara ikastea doakoa izan dadin. Gaur egun, gezurra ba-

dirudi ere, herri honetan berezkoa dugun hizkuntza ikasteko ordaindu egin behar da. Gainera, bere garaian emandako pausu egoki batzuk (azterketak gaintzeagatik jarritako bekak, administrazio langileendako laguntzak eta liberazioak...) oso ondo baloratuak izan arren, eta doakotasunerako bidean ezinbesteko hobekuntzak izan arren, azken urteotan murriztu edota desagertarazi dira krisiaren aitzakipean. Helduen Euskalduntze Alfabetatzea da, euskaltegiok modu egokian bideratuta eta baliabidez jantzita, esparru administrati- boan, sozialean eta lan-munduan ezagutza hori bermatzeko tresnarik eraginkorrena, baita erabilera eta normalizazioa bultzatzeko ere.

Bestalde, lehen aipatu dugun bezala, hizkuntza bat normaltasunez baliatzeko erabilera espazioak/guneak behar dira; haatik, tamalez, sarri askotan gertatu izan da, eskolak eta euskaltegiak euskalduntzeko guneak izan diren modu berean, kalea edota gizartea bera gai izatea jendartea eralduntzeko. Euskarak, hortaz, erabiltzeko espazioak irabazi behar ditu, gune publiko zein pribatuak. Erabilerarako gune horiek toki publikoetan bermatzeko



beharra ere hor dugu; euskara erabiltzeko benetako aukera eduki behar dugu, eta ez oztopoz jositako lasterketa edo proba. Esaterako, euskaraz bizi nahi dugunok erdarazko produktuak ditugu nagusi; besteak beste, telebista ikusi, zinema estreinaldiez gozatu edota zibermunduan ibili nahi dugunean. Aisialdiarekin lotutako jarduerak asko eta askotan, euskara bigarren mailan (edo atzerago) dago, eta egoera hori, noski, euskararen erabilera normalizatu lortzeko traba bihurtzen da.

Aipatutako arlo bi horiek lantzen ditugu AEKn, euskararen normalizazioan giltzarria den hirugarren zutabearekin batera, sustapena hain zuzen ere. Sustapenean, KORRIKA dugu ekimenik garrantzitsuena; bi urtean behin euskararen alde milaka lagunek betetzen dituzte Euskal Herriko errepideak. Datorren

udaberrian, hain zuzen ere, 18. Korrikak euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren milaka pertsonak omenduko ditu, euskalari izateko ahalginean euskara ikasten eta praktikatzen ari diren guztiak, beraiek direlako euskararen berreskurapenean zutabe garrantzitsuenetarikoa bat. Izan ere, helduak euskalduntzen doazen heinean, transmisioan etenik egongo ez dela ziurtatzen ari gara. Ikasi eta baliatu nahi dutenek egiten duten ahaleginari esker, elkarbizitazarako aukerak sortzen eta denok euskaraz bizitzea ahalbidetzen ari dira.

Hau guztia premiazkoa eta lehentasunezkoa dela ikusi beharko luke hurrengo Jaur-laritzak, eta hori da, hain zuzen ere eskatzen eta eskatuko duguna. Beraz, orain arte esan dugun guztiagatik, inongo aitzakia barik, abenduaren 1ean denok Donostiara, "euskaraz bizi nahi dugulako".

*Irakurle Taldea
Urtarrileko tertulia*
Eguna: urtarrilak 10, osteguna
Ordua: 19.30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea

*Irakurri beharreko liburua:
"Aulki bat elurretan"
Uxue Alberdi
bertan izango da*

Arretxe
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel: 943 673 118 Tolosa

IGO

Karga eta goi lanetarako grua

www.igogrua.com
Mobil zkia. 670 67 24 62

euskararen semaforoa
euskararensemaforoa.blogspot.com

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bialan 25, 1-04 atea
20271 Irua (Gipuzkoa)



Euskaraz Bizizi! Eguna

Abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna

Galtzaundi Euskara Taldeak abenduaren 1ean, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizun bezperatan Euskaraz Bizizi Eguna antolatu du Tolosako Udalarekin, Oargi Elkartearekin, Lizardi Kultur Elkartearekin eta Bai Euskal Herriarekin elkarlanean. Euskara ospakizun festa bihurtu, euskararen alorrean lanean aritutakoak zoriondu eta euskararen erabileran eragitea helburu du Euskaraz Bizizi! jaiak.

Naiara Roldán de Aránguiz

Tolosako bost eragile ezberdin lanean aritutakoaren emaitza da abenduaren 1ean, larunbatean, egun osoan zehar ospatuko den egitarau oparoaren emaitza: "Euskaldunok euskaraz jarduteko lekuak behar ditugulako, euskararen eremuak sortu eta hedatzeko beharra dagoelako, Euskaraz bizizi nahi dugulako!". Honela, abenduaren 1eko larunbatean, festa eta sentzibilizazio eguna bilakatu da Tolosan erronka bati erantzun eman nahiarekin: "euskararen alde egotetik euskaraz bizitzeko hautua

egitea norbanakoek eta eragileek", hain zuzen, zehaztu dute antolatzaileek. Horretarako elkarlana ezinbesteko giltza dela ikusirik, Tolosako Udala, Oargi Elkarteak, Lizardi Kultur Elkarteak, Bai Euskal Herriari eta Galtzaundi Euskara Taldeak elkarrekin aritu dira abenduaren 1eko egitaraua prestatuz.

Egunari Eskerrak Zuri Aipamen Berezien banaketarekin hasiera emango zaio goizeko 11.00etan Tolosako Udaletxeko Aretu Nagusian. Bertan aurtengo omenduen (Mapi Grabatuak, Txapin

Festa eta euskarara hurbildu diren norbanakoak) lana azpimarratu ondoren, festa herrikoari hasiera emango zaio. Eguerdiko 12.00etan pintxoak jateko eta sagardo edateko aukera egongo da Tolosako Tontokalen.

Ondoren, festa Plaza Berriera tokiz aldatu eta bertan ospatuko dira prestatutako ekintza gehienak. 13.30ean euskarari babesa ematen dioten argazki erraldoia aterako da, jarraian bideo proiektzioa burutuko da eta 14.00etan bazkari-txouean murgilduko dira parte har-

tzaileak. Izan ere, herri bazkariak harago, komikilariaren eta bertsolariaren arteko sinbiosiaz gozatzeko parada egongo da. Dani Fano "Anubis 3.0 Arimaren pisatzea" komikiaren sortzaile donostiarra, Adur Larrea marrazkilaria bidelagun izango du eskualdeko bertsolariak abestutako kontakizunetan. Bazkarirako tiketak salgai egongo dira Raku, Xirimiri, Denak eta Eguzki tabernetan, 12 euroren truke (langabetuak 8 euro).

Euskaraz Bizizi! Egunak errebindikaziorako tartea ere izango du. Izan ere, Kontseiluak Donostian deituriko manifestazioari erreparatu, Tolosako festaren antolatzaileek hiriburura gerturatzeko autobusa antolatu dute. Arratsaldeko 16.30ean Larremendiko autobus geltokitik autobusa aterako da, parte hartzaileei Donostiako manifestaldian parte hartzeko aukera eman eta berriro ere Tolosako festara

14:00etan Plaza Berrian
Herri bazkaria
12€

Bazkarirako Txartela



Euskararen Eguna 2012
Abenduak 1, Tolosan


itzultzeko aukera eskainiz. Honako autobus zerbitzua erabiltzeko izen emate zerrendak irekita daude Raku, Xirimiri, Eguzki eta Denak tabernetan.

Tolosan geratzen direnek ordea poteo animatua izango dute herrian bertan Oargi txarangak girotuta. Gau partean, berriro ere Plaza Berrira itzuliz, kontzertuak eskainiko dituzte Wainot, 3gabe2 eta DJ Little Martin Selektah taldeek.

Eguneko leloarekin, "Euskaraz bizizi nahi dut!", bat egin

eta mezua zabaltzeko deia egin nahi izan dute festaren antolatzaileek. Horregatik, lelodun kamisetak eta banderolak salgai egongo dira Galtzaundi Euskara Taldearen bulegoan (Nafarroa etorbidea, 6 behea. Tolosa).

Tolosako Udalak, Galtzaundi Euskara Taldeak, Oargi Elkarteak, Lizardi Kultur Elkarteak eta Bai Euskal Herriari festaz eta sentzibilizazio egunaz zipriztintzeko deia egin diete bertako herritarrei, euskaraz bizitzean.



ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan eguncero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

gizarte kutxa

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Eskerrak Zuri aipamen berezien 10. urteurrena

Urtero legez Galtzaundi Euskara Taldeak euskararekin harreman estua duten erakunde eta norbanakoak goraiatzeko zita da Eskerrak Zuri aipamen berezien banaketa ekitaldia. Aurtengoan gainera zenbaki borobila ospatuko du Galtzaundi Euskara Taldeak, izan ere aipamen berezi hauen hamargarren urteurrena beteko da.

ditu (euskara zerbitzuaren bitartez)...

Lanean jarraitzeko jarrera baikorra kontutan hartuta, Galtzaundik "Eskerrak Zuri" aipamen berezia Mapi grabatuak tailerrari ematea erabaki du. (*Irakurri enpresako buru Juan Karlos Oterori egindako elkarrizketa 14-16 orrialdeetan*).

Txapin Festa

2012ko "Eskerrak Zuri" aipamenenetan, Galtzaundik tarte berezia egin nahi izan die azken bost urteotan festa herrikoiak antolatu di-

nahi die Tolosako Euskara Taldeak honako aipamena medio.

Euskarara hurbildutako norbanakoak

Euskal Herrira gerturatu, bertan bizi eta euskara ikasten hasteko pausoa eman dutenak omendu nahi ditu azkenik Galtzaundik aurtengo Eskerrak Zuri aipamenen baitan. Azken batean euskara euren egitea erabaki dutelako, euskaldunak eta euskara ikasiz. Banaiz Bagara elkarteak euskaltegiko ohiko sistemari alternatiba eskaintzen dio, ikaskuntza formula berriak plazaratuz, bereziki atzerritar jatorria duten norbanakoei zuzenduz, euren egoera berezietan erreparatuz. Euskarara gerturapen pausoa emanez parte hartzaileak euskal gizarteratzea bilatzen du ekimen honek. Honako zergatiak kontuan harturik Galtzaundi Euskara Taldeak euskara ikasi duten, ikasten duten eta ikasiko duten norbanakoei luzatuko die abenduaren 1ean banatuko den aipamena.

10 urtez euskaltzaleei "Eskerrak Zuri" esanez

2003. urtean banatu zituen lehenengoz Galtzaundi Euskara Taldeak Eskerrak Zuri aipamenak. Hasierako urtetan Tolosako euskara taldeak euskaltzaleei eskaini beharreko aipamen hauek kategoriatan banatzen zituen (kultura, kirola, gizatasuna eta oherrezkoa). Azken bi urtetan ordea, kategorietatik ihes egin eta urtean zehar nabarmen-

du diren norbanako, elkarte edota ekimenak goraiatzea izan du helburu Galtzaundi Euskara Taldeak.

10. urteurrenaren harira, Eskerrak Zuri aipamena jaso duten omendu guztien izenak gogoratu nahi izan ditu Galtzaundi Euskara Taldeak oraingoan:

2003: Bonberenea, Alpino Uzturre Elkarte, Josu Perales eta Emeterio Zaldibia

2004: Alurr Dantza Taldea, Jose Ignazio Elola, Tere Mozo eta Jesus Altuna

2005: Antonio Zabala, Behar Zana elkarte, Abegi elkarte eta Marimi Ugalde

2006: Tolosako Zine Klub-a, Jabier Lorz "Kapu", Jonan Fernandez eta Zaldunita taldea

2007: Udaberri Dantza Taldea, Hegoalde nesken futbol taldea, Odol emaileen elkarte eta Pepi Gorostidi

2008: Bertso eskoletako irakasleak, Agustin Pagola, Mikel Errazkin eta Asun Aierbe

2009: Mattin Labayen, Tolosaldeko Arraun Taldea, Laringektomizatuen elkarte eta Juan Joxe Agirre

2010: Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Ibarrako sakatira taldea, Tolosaldea Sahararekin elkarte eta Mattin Amundarain

2011: Tolosa Kantari, Aitzol Udal Euskaltegiko irakasle euskaldun berriak eta Baso-Lur enpresa

2012: Mapi Grabatuak, Txapin Festa eta euskarara hurbildutako norbanakoak



Honela, abenduaren 1eko egunari hasiera emateko euskararen normalizazioan, eremu ezberdinetan, lanaketa berezia egin duten pertsonen edota erakundeen eskerrak emango zaizkie Tolosako Udal Areto Nagusian, goizeko 11.00etan hasiko den ekitaldian.

Hain zuzen ere, 2012. urtean zehar egindako lana kontutan hartuta eta orain arte burututako ibilbidea azpimarratu nahiarekin hiru aipamen berezi banatuko dira abenduaren 1eko zitan.

Mapi Grabatuak enpresa, Txapin Festako antolatzaileak eta euskarara hurbildutako norbanakoak izango dira Eskerrak Zuri aipamenak jasoko dituztenak.

Mapi Grabatuak

Galtzaundik Mapi Grabatuak tailerrari 2012 Eskerrak Zuri aipamena eskaintzearen arrazoia enpresa munduan euskararen inguruen egindako lana da. Grabatu eta errotulazio arloan 12 urte darama lanean Anোটako enpresa honek. Tratu

pertsonalizatua eta profesionala eskaintzen duen tailer honek azken urteotan pauso garrantzitsuak eman ditu enpresa munduan euskarazabaltze aldera.

Mapi grabatuak tailerrak euskararekiko erakutsitako konpromisoak Galtzaundik Anotako Udalarekin sinatutako hitzarmenean du oinarri: euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeko konpromisoa hartu zuten enpresen artean baitago Mapi grabatuak.

Urte hauetan guztietan,

konpromisoetan aurrera egin du Anotako tailerrak. Esaterako, hizkuntza paisaia-ri dagozkion konpromisoak ongi bete ditu (erakundearen irudian euskara lehenetsiz), bezeroarekiko idatzizko harremanak euskaraz eskaintzen ditu (euskara hutsean eta bezeroak eskatuz gero gazteleraz), bezeroarekiko ahozko harremanak euskaraz lantzen ditu (lehen hitza euskaraz...), barne dokumentazioa euskaraz itzuli eta hauek euskaraz jasotzeko eskaerak gauzatu

tuen gazte lan taldeari, hau da Txapin Festa delakoaren antolatzaileei. Gazteak gazteontzat antolatutako festa izanik, auto-antolakuntza gazte tolosarren oinarria dela azpimarratu izan dute urte hauetan zehar. Besteak beste, festa parekidea, parte hartzailea eta aldarrikapen askoren eguna da, baina Galtzaundirentzat azpimarratzeko festa euskalduna dela da eta gazteen arteko komunikazio hizkuntza euskaraz izateko egiten den ahalgina baloratu eta eskertu

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izaguirre
Gosariak eta meriendak
Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA
Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
Iurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi
SEGURAS
BILBAO
Aholkularitza
integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

matilda
zurre moda osagaken denda
Korreo Kalea, 3
Tolosa

Hirukidek 10 urte



Leire Azkue
Hirukide ikastetxeko ikaslea

Tolosako Hirukide ikastetxeak hamar urte bete ditu aurten; apustu garrantzitsua izan da eta aurrerantzean etorkizuna eraiki dezaketen ikasleak heztea jarraitzen du helburu. Hiru ikastetxe ezberdinen esperientzia uztartuz, aurrera egin dezagun gazteak gizartean hobeto integratzeko asmotan.

Bazen behin liburu bat, irakurlea entretenitzaez gain, aberastu eta hezi nahi zuena. Bere orrialdeetan informazioa eransten igarotzen zituen egunak eta gauak, goizak zein arratsak, egunsentiak eta iluntzeak... Gero eta jakintsuago bilakatzen zihuan heinean, ideiak ere bukatzen ari zitzaizkion. Zer egingo orain, neuk bakarrik ezin dut irakurlea aberats bihurtu!

Liburu gaixoa bere helburu alde batera uzteko zorian zela, beste liburu potolo bat hurreratu zitzaion, zer gertatzen zitzaien galdezka. Honek bere arazoa azaldu bezain pronto, liburu potoloak bere orri bat puskatu, hegazkin formako hegalaria bat sortu, eta airera bota zuen. Gure liburutxoak zur eta lur geratu ziren ikusmiran. Bat-batean, liburu astun eta aurrekoa

baino potoloagoa hurreratu zitzaion bi liburuei hegazkinari segika. Elkar ezagutu, eta helburu bera zutela ohartu ziren: denak irakurlea aberastu nahian zebiltzan. Beraz, beren indarrak batu eta liburu bakarra bilakatu ziren; HIRUKIDE izenburuz bataiatu zuten liburua.

Jada badira hamar urte hiru liburu horiek elkartu zirela eta beren irakurlea aberasteko helburuarekin jarraitzen dute oraindik ere. Nola ahaztu erakundearen hasiera, haur guztiak elkar ezagutzuz bat egin zutenean heziketa zabalago baten bila. Eta lortu dute gainera, haur aberats eta mundu garaikiderako prestakuntza ezin hobearrekin irteten dira urtero Tolosako Hirukide ikastetxetik.

Kristau hezkuntzaz baliatuz eta euskararen aldeko esfortzu ikaragarria eginez, 2002. urtean Hirukidek bere lehen ikasturtearen ateak zabaltu zituen ikasle berri eta zaharrei hezkuntza zabala emateko prest. Hala, astiro-astiro eta oztupoak gaudituz orain diren arte ailegatu dira: hezkuntza oso eta hezitzailea.

Eskola bat ez da bakarrik ikasgeletan ikasten dena: erdarak menderatzea, matematikako problemen soluzioak bilatzea edota kimikako formulak buruz ikastea. Eskola baten funtzioa etorkizunera-ko ikasle prestakuntza lortzea da, eta horretarako, Hirukidek

eskolaz gaindiko batzordeak ere baditu, hala nola: euskara batzordea, Agenda 21, irratiko arduradunak, Tolosako kulturaren kazetariak... arduradun horiek ikasleak dira, eta hainbat *blog* desberdin sortu dituzte urte hauetan zehar, eskolako balorazioetatik kanpo.

Eskola baten koordinazioa zeregin zaila bada ere, hiru eskola hauek elkarlanean aurrera jarraitzen dute, nahiz eta krisi garaia izan. Baina merezi du, zalantzarik gabe, haurren heziketa baita gaur egun munduaren egoera hobetzeko modu bakarra. Langile fin eta prestatuak lortu behar dira egun, hurrengo belaunaldiak denontzat onuragarri bihurtzeko. Aurreko akatsetatik ikasiz betiere, aurrerapenak egin behar ditugu geuk, belaunaldi berriek, berri ere egoerari buelta erdia emateko.

Lan hori ezin hobeto burutu izan du Hirukidek, berak ere akatsetatik ikasiz eskola jakintsuagoa bihurtzeko asmoarekin. Hegan igaro dira hamar urte, hamar itxaropen, hamar ikasketa, hamar etorkizuneko langile. Paulo Coelho idazleak behin esan zuen bezala, zerbait ikastea lehen pausoa da nolakoa den ez dakigun mundu batean sartzeko. Lehen pauso hori ematen hiru liburu hauek irakatsi zidaten; hurrengoak geure kabuz eman ahal ditugu. ©

Irakurlearen begietatik



Ione Gorostazu
Irakurlea

Imajinatu hogeita bi jubilatu. Erdiak andreak, erdiak gizonak. Guztien artean mila zortziehun eta hirurogeita hamar urte. Batzbestekoa, laurogeita bost. Bizitza guztian egindako lanak eta botatako izerdiak merezi duten sariaz gozatu asmoz, nora eta transatlantiko batera bidali ditu familiak, bidaian. Zorte txarra lagun, baina, indiar ozeanoaren erdian, X eta Y koordinatuen artean itsasontzia hondoratu ez zaie ba!

Karlos Linazasoro, Urperatze handia

Nolabait lortu dute bizi-rik ateratzea, behintzat, eta jenderik gabeko irla batera iritsi dira. Ia denak osorik, bat hanka baten faltan. "Baina, Jainkoaren izenean, Hamaika! Zer gertatu zaizu? - Marrazo batek... -Zuria edo urdina? - Ez nekike esaten. Hain azkar gertatu zen dena...". Hamaikak ez du Hamaika izena, baina hala izango da aurrerantzean. Izan ere, irlan bizimodua aurrera atera nahi badute antolatuta egin behar, eta antolaketa militarra proposatzen du kapitainak. Utikan izenak, hemendik aurrera bakoitza zenbaki bat izango da.

Surrealista da liburuaren abiapuntua bera, eta tonu horretan jarraitzen du garrantzitsua ere. Gertatu, ezer gutxi gertatzen da Karlos Linazasoroaren eleberri labur honean. Jubilatu naufragoen ir-



lan igarotako lehen eguna kontatzen du, euren arteko elkarrizketa bidez. Elkarrizketa da, izan ere, kontaketa muina.

Gure hogeita bi aitona-amonak amairik, eta, sarri zentzurik, gabeko elkarrizketatan murgiltzen dira, jo ta ke erre-torika eta erretolikan. Irakurleari maiz aterako zaio irribarrea; nik neuk barre algararen bat ere egin dut jubilatu-

jarduna dela eta. Errespetu tratatu astunez josiko da hauen mintzaira, sarri, apaiz hizketa goratuan, bestetan, eta maiz jarriko dira filosofo sakonen plantan ere. Elkarrizketek absurdu eta zentzugabera-ko joera dute, baina idazleak maisuki erabiltzen dituen ironia eta umorearen bidez gure gizartearen erretratu bat egiten du.

Hasierako helburua antolatuta eta irlatik bizirik ateratzeko plan bat egitea bada ere, esaldi batek beste batera eramango ditu zaharrak, burutazio batek galdera transzendentel bati emango dio bide, edo txantxa batek sabotaje susmoa piztuko die. Nahiz eta denak ontzi berean -uharte berean- joan, kosta egingo zaie indarrak bildu eta eraginkortasunez konponbiderik aurkitzea. Uharte bakarti batera eraman beha-

rreko hiru gauzetatik ere, inork ez du eraman, bakar bat!

Karlos Linazasoroaren prosa zalea denak gustuko istorio bat aurkituko du orri hauetan, bizia, irakurterraza, umoretsua eta ironikoa. Neuk, behintzat, oso ondo pasa dut agure xahar koadri-la honekin kontu-kontari.



Mapi Grabatuak, "Eskerrak Zuri"

Juan Karlos Otero:

"Sentsibilizazio minimo bat izanez gero erraza da euskararen alde lan egitea"

Juan Karlos Otero Anoetan kokaturiko Mapi Grabatuak enpresaren jabea da. Alkizan jaio baina aspalditik du Anoeta bizi eta lanerako tokia, euskaldun eta euskaltzalea da. Grabatu eta errotulazio lanetan murgilduta dihardu Mapi Grabatuak enpresa erosi zuenetik, ordutik gainera enpresa munduan euskarari behar duen tokia ematen lan egin du. Bere jarrera eta lanketa kontutan hartuta, aurtengo "Eskerrak Zuri" aipamena eskainiko dio Galtzaundik.

Naiara Roldán de Aránguiz

2008. urtean Galtzaundi Euskara Taldeak lehenengoz Anoetako Udalarekin enpresa mundua euskalduntzeko hitzarmena sinatu zuen. Urtetik urtera ekimen horren baitan hainbat enpresek aurrerapausoak eman eta euskara, alor guztietan, enpresako hizkuntza bihurtu dute. Mapi Grabatuak enpresak adierazitako jarrera positiboak eta indarrean jarritako ekintzek "Eskerrak Zuri" aipamenaren jabe bihurtzea lortu dute.

Urte hauetan guztietan konpromisoetan aurrera egin du Mapi Grabatuak enpresak, Anoetako Udalaren eta Gal-

tzaundiren artean adostutako hitzarmena medio. Juan Karlos Oterok enpresaren berri eman du.

Egizu Mapi Grabatuak enpresaren aurkezpena. Zer eskaini, noiz sortu, langile kopurua, bezero mota...

Orain dela 12 urte sortu zen. Herriko pertsona batek negozioa erosteko proposamena egin zidan; makineria eta bezeroak erosi nizkion, eta hortik abiatu nintzen. 12 urte hauetan, aldaketa handiak eman dira; bezero berriak sartu dira, beste batzuk desagertu dira... Ibilbidea ez da oso luzea baina

12 urtek aldaketetarako aukera ematen dute.

Lanari dagokionez, bi makina ditut. Grabaketa da azken batean hemen egiten dena; fresatzaile txiki baten laguntzaz. Makinan puntzoiak egokitzen dira, material ezberdinekoak -diamantea ere tartean-; puntzoien punta finak material ezberdinetan grabatzeko aukera ematen du: metalean, metakrilatoan, uretan... Omenaldietarako plakak, trofeoak... eta bestelako elementu txikiak ere grabatzen ditut - eskumuturrekoak, erlojuak, boligrafoak...-. Hala ere, Mapi Grabatuak enpresaren lanaren parte handi bat, %80a gutxienez, tailer elektrikoetara enfokatuta dago. Lan zehatz horretan armairu elektrikoentzako botoietarako errotulu txikiak egiten ditut. Eta langile aldetik, langile bakarreko enpresa da.

Nola hartu duzu Mapi Grabatuak enpresak "Eskerrak Zuri" aipamen berezia jasotzearen berria -euskarari emandako bultzadaren eskerra-?

Pozik. Euskalduna izanda, sentsibilizazio minimo bat iza-

nez gero erraza da euskararen alde lan egitea. Enpresa txiki honetan nik hartzen ditut erabaki guztiak, baita euskarari dagokionak ere - logotipoa, errotulazioa, papertegia, harremanen hizkuntza...-. Harremanei dagokionez, lehen hitza euskaraz egiten dut, horrela harremana hasiera batetik euskaraz izatea ahalegintzen naiz. Ez dakit zenbaterainoko kontzientzia dudana baina erraza suertatzen zait. Enpresa handien kasua oso bestelako da, zuzendaritzak kontzientziario garbia ez badu behintzat, zailagoa izango dela pentsatzen dut.

Anoetako Udalaren eta Galtzaundiren arteko hitzarmenaren bitartez enpresak euskalduntzeko planean murgilduta dihardu Mapi Grabatuak 2008az geroztik. Baina bertan parte hartzeko lehen dei hura jaso zenuenean zer pentsatu zenuen?

Euskararen alde lan egitea beti da polita eta baita lagungarria ere. Tankerako pauso txikiak pixkanaka jendea gehiago kontzientziatzeko balio dute. Hala ere, mundu alu honetan, egoera zaila da... Euskara guretzako



sekulako ohore da, euskaldun bezala gure hizkuntza izatea ohorea da, baina era berean oso txikiak gara munduan. Bertan ekoiztu, bertan mamitu eta bertan kontsumitu behar denean erreza da; baina enpresa mundua beste mundu bat da, askotan lanak kanpotik datoz, lanak kanpora bidali behar dira eta horrek euskarari dagokionez zailtasunak sortzen ditu. Gaztelania eta ingelesa hor daude eta enpresa munduan askoz gehiago funtzionatzen da eredu horiekin, hemen euskaldunekin baino.

Inguruko enpresetako egoera bestelakoa al da, euskaraz zer nolako garrantzia duela uste duzu?

Denoi berdin gertatzen zaitzake uste dut, norbera bere enpresa barruan geratzen dela uste dut, bakoitza bere gauzetan dabil eta ez dugu erreparatzen besteak zer nolako istoriotan dabilzan. Badakit batzuk behintzat harremana euskaraz lantzen dutela gehien bat, baina enpresa barrua nolakoa den ezin jakin. Inguruko enpresetan euskara dezente entzuten dela uste dut. Nik enpresa oso handiekin ez dut lan askorik egiten, baina enpresa geroz eta handiago izan zailtasun gehiago sortzen dira.

Hitzarmena aurkezteko Ano-



behintzat jendea kontzientzia-tu behar da. Hitz horiek behintzat edonork erabili beharko lituzke, errazak dira, esanahia ezaguna da...

Zer gomendio luzatuko zenieke eskualdeko gainerako enpresei, enpresa-munduan euskararekiko pausoak eman ditzaten?

Zaila da. Norberak aukeratu behar duen gauza bat da. Baina bestalde, hala moduko txinpartak hemendik eta handik eta toki guztietatik etortzen badira, jendeak kontzientzia gehiago izateko eta lanean hasteko baliagarriak dira.

Enpresa munduak bere zailtasunak ditu, jendea lanean pentsatzen baitago. Mezua, hala ere, kontzientziazioarena izan behar da. *Flashak* alde batetik eta bestetik bidali behar dira; Galtzaundi eta Euskararen Ziurtagiria horren adibide izan daitezke. Euskara alor ezberdinetan presente egonik, kontzientziazioa asimilatzea eta lanean hastea errazagoa izango da.

Euskararen Ziurtagiria ere aipatu duzu, tankerako ekime- nek zer nolako eragina dute bezeroarengan edota enpresaren nortasuna adierazteko garaian?

Hasiera batean behar lukete izan, baina zenbaitetan dekorazio elementu bat baino ez dira. Sari bat izateak, ziurtagiri bat izateak ez du ezer bermatzen; egunerokotasunean benetakoa den ikusi behar da. Batak bestearekin joan beharko luke; euskararekiko konpromisoa izan eta errealitatea hala bada, dudarik gabe, norberarentzat zein enpresarentzat plus bat izango da. ☺

16

tako udaletxean prentsaurrekoa ospatu genuenean enpresa ezberdinak bildu ginen baina ba-koitza bere esparruan dabil eta ez da harremanik sortu. Nire kasuan, Irurako Vicente Errotuluak enpresarekin harremana daukat, baina lanak trukatzan ditugulako, gure arteko harremana azken batean laborala da.

Mapi Grabatuak enpresari dagokionez, zein da bai enpresa munduan eta baita euskararen alorrean emandako aurrerapausorik handiena? Zertan izan duzu arazorik handiena?

Enpresa barnean emandako aurrerapenetako bat, makinaria gehiago eskuratzea izan da, bezeroari aukera gehiago eskainiz.

Euskara mailan, enpresa esku batetik bestera pasa zenean, hasierako momentu horretatik,

aldaketa handia eman zen. Urte hauetan, jendeak kontzientzia gehiago hartu du. Lan munduan, enpresa txikietan harremanak behintzat euskaraz egiten dira. Eskaeretan, pape- retan... oraindik badago egin beharreko lana, baina alde batetik logikoa ere bada, azken batean, gaur egun enpresak sortu edo enpresa munduan sartzen diren langile gehienak ikasketak erabat euskaraz burutu dituzte. Gure garaian, 46 urte ditut, ikasketak erdaraz egin behar izan genituen; nire generazio-koek, nire aurrekoek eta baita geroxeagokoek ere erdaraz ikasi zuten. Belaunaldi horiek zailtasunak izan dituzte baina hemendik aurrera dudarik gabe geroz eta jende gehiago izango da harremana euskaraz egingo duena.

Mapi Grabatuak 2012rako ezarritako konpromiso gutxi izan ditu, erabat euskaraz funtzionatzen du eta. Telefono konp- niako ordainagiriak euskaraz jasotzea baino ez omen zitzaion falta...

Dagoeneko lortu dut ordainagiria euskaraz ere jasotzea. Egia esanda problema handiena bezeroarekiko da, bezeroak euskaraz ulertuko eta onartuko balu albaran guztiak euskaraz erabat bidaliko nituzke; albar- nak bezeroaren arabera erdaraz bidali behar ditut eta.

Hala ere, bezeroarekiko har- rremanean euskara da nagusi. Bezeroa erdalduna izanda ere, agurra behintzat, hasiera eta bukaera euskaraz egiten dut, beti euskaraz egiten dut nahiz eta besteak ez dakiela jakin. Horrelako gauza minimoekin

17

Benito Lertxundi:

"Kulturari aldare bat egin diogu eta ez gara konturatzen dena kultura dela"

Benito Lertxundi abenduaren 14an Tolosako Leidor aretoan izango da "Oroimenaren oraina" bere diskografia oparoaren azken lana aurkeztuz. Disko berriaz, osasunaz, kontzertuez, Argizaiola sariaz eta politikaz, besteak beste, mintzo da ondorengo lerroetan Orioko bardoa.

Naiara Roldán de Aránguiz

Osasun arazoak medio kontzertuak atzeratu behar izan dituzu. Buelako kontzertua Donostiako Kursaallean izan zenuen azaroaren 17an. Osatuta, eraginik nabaritu duzu zure ahotsean?

Ahotsa orain hobeto nabari- dut. Denbora batez polipoa zela pentsatu izan genuen baina azkenean kiste txiki bat izan da. Kiste hori zela eta ahots-kordek ez zuten mugimendua egoki egiten, ez zuten talka behar bezala egiten. Orain ahotsa osatuago daukat.

Konturatu nahiz beharbada azkarregi hasi naizela kantatzen, berez hilabetean isilik egon behar nuen baina ezin nuen, entseguak egin behar nituelako.

Tolosako Leidor aretoan, ordea, abenduaren 14an eskaini- ko duzu kontzertua. Zer jasoko du emanaldira gerturatuko den Tolosako publiko fidelak?

Diskoan grabatutako hamar kantu horiek entzungo dira. Tolosan azkenengoz 5-6 aurre- ratu nituen, lehen aldiz entzun

ziren bertan. Orain publikoak ezagunago izango ditu diskoa entzun eta gero. Orain publi- koarekiko harremana aldatzen da, kantuak ezagutzen ditu eta. Hasieran "Oroimenaren oraina" disko osoa emango dut eta gero beste kantaldie- tako kantekin osatuko dut.

Lan honetan hitzen maisu askok lagundu dizute -Jon Maiak, Jose Ramon Uriartek, Olatz Zugastik, Kirmen Uribek, Pako Aristik...- Fernando Pessoren hitzek pisu berezia hartzen dute.

Oso Pessozalea naiz, oso hurbilekoa sentitzen dut esa- ten dituen gauzengatik, bere poemetan nik esango nituz- keen gauza berberak topatzen ditut. Azken aldian Pessoa- k idatziak zeuzkan zenbait pen- tsamenduez baliatu naiz.

Bestetik, beti etortzen zait poemaren bat, batek edo bes- teak idatzitakoa eta bidalita- koa. Horiekin kantuak osatzen joaten naiz. Tarteka-tarteka neronenak egiten joaten naiz eta azkenean hamar-dozena bat kantu ditudanean burura

disco bat etorri eta disco hori inguruan kontzertuetan dabilen musikariek osatzen dut. Kasu honetan musikariren artean Olatz hurbilena da; berak oso bat egiten du nire lanarekin. Azkenean horren guztia- ren ondorioz lan bat osatzen da, gero kaleratzen dugun hori.

“Laket dut” abestia zure hitzak jasotzen dira, jaioterri- rekiko maitasunaren adierazle dira, entzulea Oriko itsasadar- rera eramaten duzu...

Urteak aurrera joan ahala Oriko gero eta maiteago dut, gero eta oriotarragoa naiz, Oriko gero eta errotuagoa daukat. Erreferentzia asko daude Orion nire haurtzarotik hasita, oroimen horiek oso errotuak daude nire herrian, nire inguruan, nire ohiko tokietan... itsasadarra bera horietariko bat da. Itsasadarrean maite ditudan bizipenak ditut, adierazteko gogoia ematen dizun horietako tokia da.

Diskoaren azaleko argazkira jo eta kantuen giroa nabari daiteke, ez da ordea diskoarentzat propio ateratako argazki bat. Atzean dagoen istorio berezia kontatuko?

Diskoa behin osatuta nekala, kantuek zer adierazten duten, zer irudi sortarazten duten begiratzerakoan beti oso garbi eduki dut Oriko itsasadarrean ezagutzen ditudan zenbait txoko direla. Batez ere angeluoen garaiarekin, angelueroek lotzen dituzten tokiak, zuhaitzen adarrak, kasik uretara begira eta isurtzen bezala, iraultzen bezala. Txoko horiek oso maiteak ditut,



niretzako oso esanguratsuak dira poetiko aldetik. Oso garbi neukan portadak horrelako zerbaitek adierazi behar zuela. Marrakzi soil bat egiteko burutapena izan nuen, baina banekien goiz edo berandu toki horren irudiren bat topatuko nuela, irudi zaharren diren horietako bat. Halako batean tonto-tonto agertu zen argazki bat telebistan. Ez da Oriko, Hondarrabiako erreka- ren gune bat da, baina Oriko izan zitekeela ikusita ez nion buelta gehiegirik eman. Askok gustatu zitzaidan giroa, lanbro horrekin, hotza adierazten zuela, egunsentia- ren zenbait kolore ere bazuen eta segituan aukeratu nuen argazki hori. Eskatu genuenean, neska katalan batek - Mireia Berenguer- goizean goiz egin zuela azaldu ziguten.

Istoria oso polita da. Askotan kasualitatez hitz egiten dugu, baina askotan kasualitateak izaten dira. Ez dakigu esplikatzeko, baina askotan gure burua ideia batera bideratuta dagoenean, inuzenteki beste toki batean beste gauza bat gertatzen ari da. Argazkia egin

zuen neska goizean goiz lane- ra zihoan, berandu samar presaka zihoan, eta begirada toki horretara bota zuenean, argazki bat bota gabe ezin pasa geratu zen. Gelditu eta bere telefonoarekin argazki bat egin zion. Zergatik galdetzen diozu zure buruari. Berandu zihoan eta gainera atentzia deitu zion. Berak ez zekien noski niretzako lan bat egiten ari zela, hortaz ere esan daiteke Pessoak ez zekiela niretzako idazten ari zela... Horrela egiten ditugu gauzak, konkretuki beste batentzat ari garela jakin gabe. Gureak gero beste norbaitek hartuko ditu eta bere bidean jarriko du. Horrelakoa da bizitza. Hori oso polita da.

Argazkiaren istorioa, egun bakarrean gertatu zen, berak goizean argazkia atera zuen, ez zion kasu gehiegirik egin, bere mutilari egun horretan bertan telebistara bidaltzea bururatu zitzaion eta nik egun horretan bertan ikusi nuen. Oso berezia izan zen, gero elkar ezagutu genuen.

Argazkiola 2012 saria jasoko duzu abenduaren 6an Durangoko Azokan, “euskara eta euskal kulturaren alde eman-

dako guztiarengatik”. Zer suposatuko du sari honek zure ibilbide oparoan?

Nik sari emate zeremonia horretan ez naiz oso gustura egoten, ez zaizkit ekitaldi horiek asko gustatzen. Oso arraro sentitu izan naiz beti, baina kasu honetan sariak metafora oso polita adierazten du; argizaiola, ilunpean argia egiten duen zerbaite da. Horrelako kontsiderazio bat zuregan dagoenean oso polita da. Jendea askotan esker onekoa izaten da eta saritu nahi izaten du, nahiz eta gu nahiko pribilegiatuak izan, guk ez dugu meatzetara joan beharrik izan, gustatzen zaiguna eginez aritzen baikara. Publikoarentzat bizi garenok, lan baten truke txaloak jasotzen ditugunok, oso sarituak sentitzen gara, bestela ere. Gizarte horrelako oroitzapen, kontsiderazio edo errekonozimenduak kultura hori dagoelako ematen dira. Esker onekoak izan behar.

Abenduaren 3a, euskaren eguna, ate joka dugu. Zer dugu ospatzeko eta zertan jarraitu behar lanean?

Mentalitate gaizki bideratu bat dago, askotan hartzen di-

tugu euskara eta gure kultura, guregatik apartekoak bezala. Azken finean, horiek denak gu gara, gu bizi gara. Bizitzeko gure pentsamendua, gure estiloa eta gure adierazpenak ditugu; gure tradizioan eta istorioan eman diren joerak geureganatu egin ditugu. Hori nola gauzatzen da? Horrek nola ziurtatzen dizu munduan bere presentzia? Izanik. Ez du ahalegin eta esfortzu bat izan beharrik, gauza horiek denak niri beti faltsuak iruditzen zaizkit. Ni ez naiz konturatzen era heroiko batean bereziki ezer egin dudarik euskararentzako edota euskal kulturarentzako. Niri bizitza tokatu zait, honekin, hemengo haizearekin, hemengo klimarekin eta hemengo mendi eta itsasoekin bizitza tokatu zaidan bezala. Horiekin guztiekin bat naiz.

Nahi gabe. Hori horrela izanik zuk zure eskamak utzi egiten dituzu, zaren bezala. Azkenean izatea da. Eta izateko zer behar da? Izateko baldintza ahalik eta egokienak behar ditugu.

Gure kultura, gure euskara, gure esaten dugunean... benetan bizkortasuna izango dute benetan gure buruaren jabe garenean, aske garenean, inork agindu behar ez digunean, ez baimendu, ez debekatu behar digunean. Gure aburuz, munduan presente garenean, gure izateko erarekin, inork agindu gabe eta inork oztoporik jarri gabe. Orduan gauzek beste bizkortasun bat eta beste bizitasun bat hartzen dute.

Hortaz, hemen besteak beste badugu pendiente arazo politikoa. Herri bat, burujabe-

tza bat behar dugu, munduan egoteko eta konpartitzeko. Eta ez besteen eskutik, baldintzapean eta debekupean.

Kulturaz hitz egiten dugunean ez gara konturatzen bizitzan egiten dugun guztia kultura dela, batzuetan gauza txarrak ere egiten ditugu, gure kalterako eta horiek ere kultura dira. Kultura ez da nahi eta nahiez horrela, egiten asmatu egin behar da, asmatu behar da gauzak hobeak izan daitezkeen. Barnean politika dago; politika kultura da, gerra ere kultura den bezala eta torturaztea ere bai. Badago horrelako automatismo bat buruan, kulturari aldare bat egiten diogu eta ez gara konturatzen dena kultura dela. Bizitzan egiten dugun guztia, gorrotatzen dugunean ere kultura egiten ari garela.



Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak
Kotxe-aseguruak
Istripuak
Gaisolasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-aseguruak
Denda-aseguruak
Erretiroak
Inbertsio fondokoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

01001001
00111100
00111100
00111100

Tolosa Bit
Informazioa Zertan
Oraindik ez da inportatutako
Egilea eta partikularmentzat
Mantentzen

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

errrotatxo
okindegia

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

irakurri entzun Ikusi

Alter Ero
Bertol Arrieta

Ispiluari begiratu eta zeure burua beste norbaitekin tronpatzeko zalantzan sumatzean, igarriko duzu alter egoa bere kabuz ibiltzen hasi dela. Ipuin hauetako lagunak dur-duza batel hartu ditu, nahasmenduak euren zainetan bidea egin eta portaera aldrebesturik.

11 kantatzeko
Urko Egaña

11 kantatzeko, kontatzeko, ikusteko, gozatzeko... betiko 11 ipuin bertsotan jasotzen dituen dvd-a. Ipuin klasikoak eta bertolaritza, bat eginda datoz 11 kantatzeko dvd-an. Hamaika ipuin: Mari Errauskin, Pinotxo, Txanogorritxo... Ezagunak diren ipuin klasikoak Oñatiko jentilen istorioa eta Sant Jordiren kondaira gehitu zaizkie.

Morritson eta Gartzia
Aiert Goenaga eta Jon Urraza

Euskal Herrian eta euskara hutsean egindako 3D luzemetraia. Durangoko azokan aurkeztuko da. Bost lagunentzako artean, bost egunetan grabatutako lana, ikuspuntu independente batetik. Antzerki zein zineman interpretazioaren naturaltasuna lantzen du, komedia eta dramaren arteko erdi bidean.

hitzordduak

Azaroaren 30etik abenduaren 14ra bitarteko

Udazkenean Kultura. Alegia

Azaroak 30, ostirala. Barrura begiratzeko leihoak. Batzar aretoa. Kultur Etxea. 22.00

Abenduak 1, larunbata. Barrura begiratzeko leihoak. Kultur Etxea. 22.00

Abenduak 2, igandea. Dantzari Txiki Eguna. Sutarri Dantza Taldea

Abenduak 3, astelehena. Euskararen Eguna. Kafe-tertua. Udaletxea. 18.30

Abenduak 12, asteazkena. Ipuin kontaketa, Maite Frankok eskainia. Liburutegia. 17.00

Kulturaldia. Ikaztegieta

Azaroak 30, ostirala. Jose Mari Garmendiak egindako 3. Laburmetraien proiektzioa eta ondoren euskal afaria, Herri Ostatuan. Kantaldia Unai Urretabizkaia eta Jone Garmendiarekin.

Abenduak 2, igandea. Ezkio Itzasoko "Igartubeiti baserria" irteera. 09.30

Abenduak 3, astelehena. Euskararen Eguna. Eskolako jaialdia eta ondoren txokolatada

Zinea

Baztan. Azaroak 30, ostirala (22.30) eta abenduak 3, astelehena (20.30). Tolosa, Leidor.

KZ Gunea

Albiztur. Azaroak 30, ostirala. 16.00-20.00

Txotxongiloak

Titirijai. Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia. Abenduaren 2a arte. Tolosa, Leidor, Topic eta Kultur Etxea.

Azoka

Txuleta Festa. Abenduaren 6tik 9ra bitartean. Tolosa, Zerkausan. Tolosako erretegiek bazkari eta afariak eskainiko dituzte.

Ikastaroak

Bihotz-biriken suspertzea eta DEA erabilera ikastaroa. Abenduak 3 eta 4. DYA Gipuzkoak antolatuta, DYA Tolosako egoitzan. 18.30 -21.00. Izena ematea: 943 46 46 22

Erakusketa

Guatemalako Ixil eskualdeko emakumeak. Abenduaren 7a bitartean. Tolosa,

Aranburu jauregia. Inmakulada Ikastetxeak eta Mugen Gainetik erakundeak antolatuta

Bizilagunak. Abenduaren 21a arte. Alegia, Kultur Etxea. SOS Racismok eta Mundu Bat Tolosaldeanek antolatuta.

Mariona Masgrau: bidaiabat txotxongiloen mundura. Tolosa, Topic.



Kontzertua

Benito Lertxundi. Abenduak 14, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30

Alegiako Gaztetxearen 25. Urteurrena

Azaroak 30, ostirala. 19.00. Musika tertulia. Okene Abrego, Andoni Tolosa

"Morau", Joxi Ubeda eta Iñaki Nabarro hizlari, Koldo Otamendi moderatzaile lanetan. Ondoren, Garagardo Azoka: bertako nahiz kanpoko garagardoak, kostila eta gaztaina jatea. 22:30ean kontzertuak: Okene Abrego & Mariano Hurtado, Morau eta Petti.



Abenduak 4, asteartea. 19.00. Hitzaldia: "Gizarte kontsumista", Ander Arandiaren eskutik.

Abenduak 5, asteazkena. 22.30. Poker txapelketa
Abenduak 9, igandea. 19.00. Antzerkia, "La verdadera historia de Lola Puñales", La Patro Teatro.

Abenduak 11, asteartea. 19.00. Hitzaldia: "Gerraren beste aurpegiak", Karlos Zurutuza.

Abenduak 13, osteguna. 20.00. Dispositibak. "Madagaskar", Txuspi-ren eskutik.
Abenduak 14, ostirala. 22.30. Ping-Pong txapelketa.

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbidek diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Klimatizazio instalazioen erregulazio automatikoak (Termostatoak, Presostatoa...)	2012.12.10	20
Kalkulu orrien aplikazio informatikoak (Oinarriko Excel)	2013.01.07	50
Automatismo programagarri aurreratuak	2013.01.07	60
Zoru erradiatzaile instalazioak	2013.01.14	20
Aire egokituko instalazioen muntaita	2013.01.28	40
Txirbil harroketaren bidezko mekanizazio prozesuen espezifikazio teknikoak	2013.02.04	60

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 30 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Asteazkena, 5 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Astelehena, 10 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
Larunbata, 1 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Osteguna, 6 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Asteartea, 11 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Igandea, 2 Olarreaga M. (M.J. Iraola, 10) Tolosa	Ostirala, 7 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa	Asteazkena, 12 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Astelehena, 3 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Larunbata, 8 Echeveste, Jesus M ^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Osteguna, 13 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
Asteartea, 4 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Igandea, 9 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Ostirala, 14 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa

Telefono interesgariak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian geriatrikoa	943 672 932
Medikua	Udaltzaingoa	943 675 858
Baliarrain	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Medikua	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



**SANTA
LUZIA
GARAJEA**

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

Etxebizitza

• Bielsa-n (Huesca) etxebizitzak salgai 50.000,- € tik aurrera. Kalitatezko ekipametuak. Pirineoetan, Frantziako eski estazioetatik oso gertu (Sain Lary eta Piau Angali). Ordesako parke nazionala eta "Monte Perdido" inguruan. 619311255

• Jaka-ko urbanizazio batean azken 5 etxebizitza salgai garaje eta trasteroarekin. Prezioak: 120.000,- € eta 145.000,- € artean. Erabateko kalitatezko ekipametuak. Informazio gehiagorako deitu 619311255ra.

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Furgoneta Volkswagen T4 modelo, multivan salgai. 240.000 km. Egoera onean. Kanbio automatikoa. 102 zaldi. 9.500 euro. 609481124

• Lokala salgai. 34 m², Iparragirre auzoan (Tolosa). (Ana). 645 710789

Horoskopoa

Azaroaren 30etik abenduaren 14ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Zure buruarengan konfiantza gehiago izango duzu, komunikaziorako duzun gaitasuna agerian utziko duzu. Zenbait gertaerei konponbidea emateko orduan, intuizioa bidelagun izango duzu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Detaile guztiak ondo aztertuz gero, helburuak eskuratzeko egin beharreko aldaketak ondo burutuko dituzu. Eman-kortasun ekonomikoa, baina bide alternatiboei ekinez.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Etorbizunari begira zaude azken aldian; adina izango ote? Trabatuta dauden auziek bultzada bat behar izango dute. Lan edo ikasketa berriak abiatuko dituzu. Besteengan pentsatuko duzu eta horrek zure buruarengan konfidantza izaten lagunduko dizu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Zure interesak bizitza pribatuari begirada daude, bizitza publikoak ez zaitu arduratzen. Bizitza pertsonala zein laborala antolatzeke garaia. Aldaketak datoz eta horrek bere eragina izango du garbiketa pertsonalaren prozesuan. Arazoai indarrez ekingo diezue.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Ingurukoengan inoiz baino eragin gehiago izango duzu. Pertsona berriak azalduko dira zure bizitzan. Adiskidetasuna tankera guztietako jardueretan presente egongo da. Irudimena bidelagun duzu; fantasiak errealitate bihurtzeko nahia baduzu kreatibitatea landu beharko duzu.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Patuak zortea baino ez dizu ekarriko, hala ere, zure indarra ere jarri beharko duzu helburuak eskuratu ahal izateko. Lan arloan erabaki zehatzak hartu behar izango dituzu.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Inteligentzia eman beharreko pausoa erabakitzea dagokizu. Komunikatzeko duzun era aldatu egingo duzu. Aro berri honetan jende ugari ezagutuko duzu. Iraganeko planteamenduak ere aldatu egingo dira.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Ingurua liluratzeko gaitasuna duzu. Maitasunean adeitsu azalduko zara, konpartitzeko gogoz. Tankera guztietako baliabideak handitzeko aukera. Zure baitan emango diren aldaketa txiki guztiak presente izango dituzu.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21
Bizitza kalitate maila handituko zaizu. Konkistarako gogoz zaude, maitasunean zein negoziotan. Indarrez eta ausardiarekin baterik zaude. Iraganetik datozen bikote arazoak konpontzeko garai ezin hobea.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Antolakuntza mailan ondo arituko zara; lan eta atsedean orduak ondo banatzen ikasiko duzu. Kezkatzen zaituen osasun arazo horrek irtenbidea du; horregatik, aurrerantzean zure gorputzari entzuten ikasi beharko duzu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Alaitasun eta bizitasun garaian murgilduko zara. Gozamenerako gaitasuna %100ean martxan jarriko da. Bizitza umorez baterik aurre egingo duzu. Bizitza sentimentalak aldaketa ugari izango ditu.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Bizitza filosofia berrian pentsatu beharko zenuke; bizitza pribatuaren eta laboralaren arteko orekari erreparatuta. Etxe barruan aldaketa ugari egingo dituzu.

Tolosa&Co

MERKATARIAK-OSTALARITZA-ZERBITZUAK



ABENDUAREN 6AN

- Aeromodelismoa Berazubiko estadioan 11:00etatik 13:00etara
- Itsas modelismoa Zerkausiko ontziraletan 12:00etatik 14:00etara
- Broxeta eta hanburgesa feria zerkausian 13:30etatik aurrera
- Tren turistikoa Tolosatik barrena 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etatik 17:30etara
- Hypo eta Tomax pailazoak Zerkausian 17:30etik aurrera.

Zenbait komertzio zabalik egongo dira!

11:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 20:30etara



Emeterio Arrese 2- 1º 6Bul. 20400 Tolosa / 943 653 578 / tolosakomerzio@gmail



euskaraz bizi

nahi dugu

euskaraz
bizi
nahi dugu

Euskaraz Bizi! Eguna

Abenduak 1, Tolosan

Abenduak 1, Euskaraz bizi! eguna Tolosan
11:00etan Eskerrak Zuri Alpamen Bereziak,
Tolosako Udal areto nagusian.

12:00etatik aurrera pintxoak, Tonto kalean

Plaza Berrian

13:30etan Argazkia

13:45 Bideoa

14:00 Bazkari-Txoua, Dani Fano eta Adur
Larrea komikilariekin eta bertsolariekin.

Tiketak salgai Raku, Xirimiri, Eguzki eta De-
nak tabernatan
12 € langileak
8 € langabetuak

17:00etan Manifestazioa Donostian
Autobusa 16:30ean, Larramendiko autobus
geltokitik irtengo da.
Izen emateak: Raku, Xirimiri, Eguzki eta De-
nak tabernatan.

Arratsaldean Poteo animatua Oargiko baran-
garekin

21:00etatik aurrera, Plaza Berrian
Bokatak eta kontzertuak:

-Wainot
-3gabe2
-DJ Martintxo

Kamisetak eta banderolak Galtzaundin salgai

